

# **UNIBASQen 2010-2013 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN BETETZE MAILARI BURUZKO TXOSTENA**

## *Aurkibidea*

<i>SARRERA</i>	<i>3</i>
<i>ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK</i>	<i>4</i>
<i>ONDORIOAK</i>	<i>11</i>

## 1. SARRERA

Txosten honen helburua Unibasqen 2010-2013 aldirako Plan Estrategikoaren betetze-maila aztertzea da. Plan horren xedea tresna izatea zen, kalitatea kudeatzeko sistema baten esparruan, erakundearen helburuak betetzeko tresna, alderdi interesdunen premiak betetzeko tresna, eta edozein erakunderi (eta are gehiago gure Agentziari, erantzukizun publiko nabarmenak dituen aldetik) datxekion gizarte-erantzukizun korporatiboa behar bezala betetzeko tresna, gertakariei aurrea hartuta, arriskuak leunduta, eta etengabeko hobekuntza eta arrakasta jarraitua eta iraunkorra lortzea xede izanik.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Lege berriaren ondorioz, legeari eta legean deskribatzen den agertoki berriari egokitutako plan estrategiko berria idatzi beharrean gaude, Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparruaren kalitate-estandarrak betetzearren. Araudi berriari esker, erabat bete ezin izan ditugun zenbait ardatz (esate baterako, "Europarekin bat etortzea") orain betetzeko aukera izango dugu eta lege horretan aurreikusitako ENQA (the European Association for Quality Assurance in Higher Education) elkartean sartzea ere gauzatu ahal izango dugu.

Txostenean, ardatz estrategikoak eta horiekin loturiko helburuak aztertuko ditugu, baita helburuen betetze-maila ere, baina ez ditugu berariazko jardunak aztertuko.

## 2. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK

Unibasqen 2010-2013 aldirako Plan Estrategikoa zazpi ardatz estrategikotan oinarritzen da eta ardatz horiek berariazko helburuen bitartez garatu dira. Jarraian, ardatzak, helburuak eta horien betetze-maila orokorra azalduko ditugu.

### 1. ARDATZA: ANTOLAKETA, KALITATEA, BARRUKO KONTROLA ETA GOBERNU ARDURATSUA

1.1 helburua: Agentziari esku artean duen misioa zuzen betetzeko behar dituen langileak eta baliabideak ematea.

1.2 helburua: Barruko antolaketa eta kudeaketa hobetzea.

1.3 helburua: ISO 9001:2008 arauan oinarriturik, kalitatea kudeatzeko sistema bat ezartzea.

1.4 helburua: Arriskuak kudeatzeko eta barruko kontrola egiteko funtzioa ezartzea. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak horretarako eginak dituen zuzentzarauak eta gida erabiliz egingo da.

1.5 helburua: Agintzeko, zuzentzeko eta erabakiak arduraz hartzeko prozesuetan etengabe hobetzeko eta gardenago eta independentzia handiagoz jokatzeko neurriak eta protokoloak ezartzea.

“Antolaketa, kalitatea, barruko kontrola eta gobernu arduratsua” ardatz estrategikoan Agentziaren barne-antolamenduarekin loturiko helburuak biltzen dira. Lehen helburuan aurreikusitako jardun gehienak planaren indarreko lehen urtean bete ziren. Bigarren helburuari dagokionez, Agentziaren programetako espedienteen artxiboaren antolaketa hobetu dugu eta hobetzeko lanean jarraitzen dugu; horretarako, dokumentu-kudeatzaile bat ezarri dugu. Hirugarren helburua orain ari gara gauzatzen; Unibasqen prozesu-mapa eta kalitateari buruzko eskuliburua berrikusten ari gara horrekin loturiko prozedura guztiak definitzeko eta 2013. urtean ISO 9001:2008 ziurtagiria lortzeko. Laugarren helburua Agentziaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren barruan sar daiteke prozesu guztien kudeaketa integratua egitearren. Azkenik, bosgarren helburuan aipatzen den gardenago eta independentzia handiagoz jokatzeari dagokionez, Agentziaren antolamenduari eta erregulazioari buruzko informazioa txertatu dugu webgunean, baita organoen osaera, egintekoa eta kontuak emateko dokumentuak (memoriak...) ere.

## **2. ARDATZA: IRAKASLEAK EBALUATZEA ETA EGIAZTATZEA**

2.1 helburua: Irakasleak ebaluatzeko eta egiaztatze prozesuetan, etengabe hobetzeko neurriak eta protokoloak ezartzea: egiaztapena, osagarriak, seiurtekoak.

Irakasle eta ikertzaileak ebaluatzeko eta egiaztatze prozesuari dagokionez, plan estrategikoaren indarraldian eta programaren barruan egindako hausnarketaren ondorioz, irakasle eta ikertzaileak egiaztatze prozedurak arautzen dituzten arauak aldatu egin dira; honako hauek argitaratu dira: 350/2010 Dekretua, abenduaren 28koa zeinaren bidez aldatu egiten den 192/2007 Dekretua, Euskal Herriko Unibertsitatean kontratatutako irakasle eta ikertzaileek eta doktore-titulua duten unibertsitate pribatuetako irakasleek Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentziaren (Uniqua) ebaluazioa eta egiaztapena lortzeko prozedura arautzen duena, eta, era berean, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle laguntzaileak edo elkartuak kontratatze aurretiazko txostena lortzeko prozedura ere arautzen duena; eta 228/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, Unibasq Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentziak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile kontratatutako eta unibertsitate pribatuetako irakasleak Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak ezarritakoaren arabera ebaluatzeko eta egiaztatze erabiltzen dituen irizpideak onartzen dituena. Horretaz gain, eskaerak izapidetzeko erabiltzen den aplikazio informatikoa hobetu dugu eta izapide guztiak aplikazio horren bitartez egin behar dira orain. Gaur egun, eskaerak Eusko Jaurlaritzaren PLATEA plataformaren bitartez modu elektronikoan izapidetzeko prozesua ezartzen ari gara eta, horren ondorioz, paperezko espedienteak murriztuko dira.

UPV/EHUko gehigarriko ordainsariak esleitzeko ebaluazio-prozesuari dagokionez, prozesua erregulatzen duen araudia ere aldatu da eta 64/2011 Dekretua argitaratu da, martxoaren 29koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarriko ordainsari osagarri buruzko Dekretua aldatzen duena. Espedienteen ebaluazioa kudeatzeko aplikazio informatikoa ere hobetu dugu.

Azkenik, 2010. urtean, UPV/EHUko kontratatutako irakasle eta ikertzaileen ikerketa-seiurtekoak ebaluatzeko prozesua zehazteko hitzarmena sinatu genuen Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiarekin eta, horren bitartez, CNEAI Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak ebaluazioa egiteko kudeaketa-agindua formalizatu zen. 2012. urtearen amaieran hirugarren deialdia argitaratu zen eta 2013ko lehen sei hilekoan egingo da horren ebaluazioa.

### **3. ARDATZA: TITULAZIOEN EBALUAKETA**

3.1 helburua: Titulazioak ebaluatzeko eta egiaztatzeko programak garatzea eta hobetzea.

3.2 helburua: Titulazioen jarraipena egiteko programa garatzea.

3.3 helburua: Agentzia honetan euskal unibertsitate-sistemako titulazioen egiaztapena prozesu bakar batean egitea lortzea.

Titulazioen Ebaluaketa ardatz estrategikoa berariazko 3 helburutan banatuta dago eta lehen biak bete direla esan dezakegu; aldiz, hirugarrena betetzeko, ENQA erakundean sartu eta eskubide osoko kide izatea lortu behar dugu.

Lehen helburuaren barruan, gradua, masterra edo doktoregoa baimendu aurreko txostena egiteko programa berriz diseinatu dugu eta, horretarako, dagozkion protokoloak argitaratu ditugu, Titulazioak Ebaluatzeko Batzordea sortu dugu eta ebaluatzaileen lana errazteko Ebaluazioari laguntzeko Gidak osatu ditugu.

Bigarren helburuari dagokionez, titulazioen jarraipena egiteko programaren diseinuan parte hartu dugu REACU Unibertsitate Kalitatearen Agentzien Espainiako Sarean, graduaren eta masterraren jarraipena egiteko protokoloa zehaztu genuen eta, esperientzia pilotua egindakoa eta Euskal Unibertsitateko Sistemako 3 unibertsitateek egindako hausnarketaren ondoren, jarraipena egiteko protokolo berria argitaratu dugu; horretaz gain, unibertsitateek aurkeztu dituzten jarraipeneko auto-txostenak ebaluatzen ari gara. Ebaluazio horretan, titulazioei buruz eskura dagoen informazio publikoaren ebaluazioa ikasleek egingo dute, betiere Agentzian alde zuzenetik prestakuntza-saio bat eginda.

#### **4. ARDATZA: ERAKUNDEEN EBALUAZIOA**

4.1 helburua: Erakundeak ebaluatzeko eta egiaztatzeko martxan diren prozesuetan, etengabe hobetzeko neurriak eta protokoloak ezartzea: Audit, Docentia.

4.2 helburua: Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren organismo aholku-emaile eta ebaluatzaile izanik, 2011-2014 Unibertsitate Plana izapidetzen parte hartzea.

4.3 helburua: Erakundeak ebaluatzeko eta ebaluazio prospektiboa egiteko programa berriak prestatzea, orokorrean, unibertsitateen eta goi-mailako ikasketa-erakundeen barruko kudeaketa-sistemak hobetzeko eta egiaztatzeko, eta, zehazkiago, baita beren zerbitzuetako sistemak hobetzeko ere.

Erakundeen ebaluazioaren ardatzean lehen helburua baino ez dugu bete oso-osorik. AUDIT eta DOCENTIA programetan lanean jarraitu dugu, ANECArekin lankidetzan. Horretaz gain, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak eta Euskal Unibertsitate Sistemako 3 unibertsitateek sinatutako programa-kontratuetan hartutako konpromisoen betetze-maila ebaluatzen jarraitu dugu.

Bigarren helburua ezin izan dugu bete, 2011-2014 aldirako Unibertsitate Plana izapidetzean ez delako Agentziaren aholkularitzarik eskatu.

Azkenik, erakundeen ebaluazioari buruzko ardatzaren azken helburua ere ez dugu bete, ez delako erakundeak ebaluatzeko beste programarik garatu, ezta prospektibakorik ere. Gaur egungo egoera ekonomikoa dela-eta, ez dirudi erakundeak ebaluatzeko programa berriak garatzea bideragarria izango denik, betiere kontuan izaten badugu Euskal Unibertsitate Sistemako 3 unibertsitateek jada parte hartu dutela Kalitatearen Barne Bermeko Sistemak errekonozitzeko AUDIT programan, zentro guztiekin.

## **5. ARDATZA: IKERKETAREN EBALUAZIOA**

5.1 helburua: Agentzia ebaluazioko erreferente bihurtzea Euskal Autonomia Erkidegoan, dagokion eskumen-esparruaren barruan.

Ardatz hori eta ardatzarekin loturiko helburua ez ditugu bete. Agentzia Jaurlaritzaren eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen ikerketa-programak ebaluatzearekin loturiko erreferente bihurtzeko aukeraren gainean hausnarketa egitea sustatu dugu Eusko Jaurlaritzarekin, baina Agentzian ebaluazio-programa berriak garatzeko ildo horri ekin aurretik Agentziaren Aholku Batzordearen barruan hausnarketa egin beharko genuke eta proiektuaren bideragarritasuna aztertu, betiere Agentziak gaur egun duen plantillaren egitura kontuan izanik.



## **6. ARDATZA: EUROPAREKIN BAT ETORTZEA**

6.1 helburua: Agentzia ebaluazio-agentzien nazioarteko estandarretara homologatzea.

6.2 helburua: Agentziak ENQA ziurtagiria lortzea.

Europarekin bat etortzeko ardatz estrategikoa betetzeko bi helburu finkatu dira. Lehenaren ondorioz Agentzia erregulatzen duen araudia aldatu da plan estrategikoaren indarraldian. Hasieran, Agentziaren Estatutuak aldatu eta Europako irizpide eta jarraibideetara egokitu ziren, eta Uniquial Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren estatutuak onartzen dituen Dekretua aldatzen duen abenduaren 28ko 349/2010 Dekretuaren bitartez argitaratu ziren. Gerora, Agentzia erregulatzen duen araudiaren erregulazioaren aldaketa izapidetu zen eta Agentziaren lege propioa egitea ezinbestekoa zela ikusi zen; beraz, 2012ko uztailaren 4an argitaratu zen 13/2013 Legea, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa.

Araudi-aldaketa horietaz gain, Agentziaren Kode Etikoa ere aldatu dugu, xede berari jarraiki. Ebaluazio-batzordeak estandar horietara egokitzeko prozesua burutu dugu eta, horretarako, ebaluatzaileak hautatzeko prozedura onartu dugu eta ebaluatzaileen bankua zabaldu dugu; ebaluatzaileen bankua berraztertzen ari gara orain, hautaketa-prozesua hobetzarren.

Agentzia erregulatzen zuen araudia aldatu ostean (nahiz eta oraindik Estatutu berriak argitaratzeko zain gauden), ENQA elkarteko kide izateko eskaera egin dugu, eskubide osoko kide izan nahi baitugu, eta adituen bisitaldia jaso aurretik egin beharreko autoebaluazio-memoria idazten ari gara.

## 7. ARDATZA: KORPORAZIOAREN GARAPENA

7.1 helburua: Unibertsitate-sistemaren berme-sareekin eta agentziekin harreman gehiago eta estuagoak izatea.

7.2 helburua: Agentziaren barruan, prestakuntza-politika prestatzea.

7.3 helburua: Agentziaren irudia hobetzea, komunikazio-politika berriaren bitartez.

“Korporazioaren garapena” ardatzaren barruan honako ekintza hauek egin ditugu ardatz horretarako finkatutako helburuekin bat etorrira:

- REACU sareko parte-hartzea eta lankidetzak jarraitu ez ezik, areagotu ere egin ditugu: agentzien sareko bilera guztietara joan gara eta proposatu diren baterako lan-taldeetan parte hartu dugu.
- Lehen ere esan dugunez, AUDIT eta DOCENTIA programetan parte hartzen jarraitu dugu, ANECArekin elkarlanean.
- Beste agentzia batzuetako langileen laguntza izan dugu prestakuntza-ikastaroetan eta jardunbide egokiak ezartzeko.
- 2010-2012 aldirian hainbat prestakuntza-jardura egin ditugu unibertsitatearekin eta unibertsitatearen funtzionamenduari, administrazio-legeriarekin eta ebaluazioarekin loturik (Europako esparruan, Espainiako esparruan eta beste agentzia batzuetako langileek hainbat programen funtzionamendua ere aurkeztu digute); horretaz gain, kalitatearen eta administrazio elektronikoaren arloko gaietan prestakuntza orokorra jaso dugu eta irakasleak edo titulazioan ebaluatzeko berariazko jardunaldietan parte hartu dugu.
- Azkenik, eta ardatzaren azken helburuaren ildotik, webgunea berritu dugu eta Komunikazio Plana lantzen hasi gara; horren ondorioz, 2012. urtean Unibasqen I. Sinposioa egin dugu: “Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea: guztion konpromisoa”. Ekitaldi horren helburua Unibasq Agentziaren eta euskal gizarteko agente garrantzitsuen artean gogoetarako eta komunikaziorako gune bat sortzea izan da, elkarren artean hobeto ezagutzeko eta unibertsitate-sistemaren hobekuntza integralaren bilaketan harreman eta sinergia positiboak ezartzeko.

### 3. ONDORIOAK

2010-2013 aldirako plan estrategikoa eta planeko helburuak betetzeko egin diren jardunak aztertuz gero, Agentziaren egungo egoera zein den jakingo dugu. Prozesu guztiei buruzko hausnarketako, berrikusteko eta hobetzeko prozesuen ondorioz, Agentzia erregulatzeko duen araudi berri egokiagoa lortu dugu, Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Esparruan kalitatea lortzeko irizpide eta jarraibideak betetzeko helburura gehiago egokitzen dena eta, hartara, ENQA elkartean eskubide osoko kide izatea lortuko dugu. Aurkeztutako txostenetik ondoriozta daitekeenez, 2010-2013 aldirako plan estrategikoa bete dela esan dezakegu eta, une honetan, beste plan estrategiko bat egin behar dela uste dugu, betiere Unibasqen egoera berrira egokituta.